

«TXERNOBIL TXIKI BAT DAUKAGU ETXE BAKOITZEAN»

Eremu Debekatura sartu aurreko azken herria da Orane. Pixka bat aurrerago, Poliziaren kontrol batera iristen da errepidea eta baimena dutenek soilik jarrai dezakete Txernobylerantz. Svieta Volotxai irakasleak, 41 urte, behin bakarrik zeharkatu du hesi hori azken 28 urteetan. Txernobyngo zentral lehertua eta Pripiat hiri abandonatua bisitatu zituen 2001ean eta negarrez irten zen, tristurak gogoia ilundu zion hilabete askotarako. Volotxai, berez, emakume alaia, bromazalea eta oso adoretdua da. Irakaslea da Oraneko eskolan, arazo larrienak dituzten umeak laguntzen dihardu etengabe, urtero Euskal Herrira etortzen da, Txernobyngo gazteen begirale. Baina Txernobyngo zentrala edo Pripiat aipatzen zaizkionean, eskuekin aurpegia estaltzen du, isildu egiten da, burua mantso mugitzen du, ezetz esanez bezala.

–Ezin dut jasan. Txikitan maiz joaten ginen Txernobylera eta batez ere Pripiatera, gure inguruko hiri modernoena zen eta. Jai egunetan Pripiateko zinemara joaten ginen, antzokira, parkeetara, lakuetan bainatzera, erosketak egitera. Oso hiri bizia zen. Orain abandonatuta dago eta, argazkiak ikusten ditudanean, ezin dut jasan. Oso goibel jartzen naiz. Telebistan Txernobyli buruzko zerbait ematen badute, kanala segituan aldatzen dut. Inpresio handia egiten dit, minduta uzten nau denbora luzez.

Ander Izagirre

Txernobyngo zentrala lehertu zenean, Svieta 13 urte zituen eta bainujantzian ibili zen soldadu maskaradunak pasatzen ikusten. Inork ez zion erradiazioaz ezer esan. Orain Euskal Herrira etortzen da urtero, hango umeekin, eta erradiazioa baino arazo larriagoak daukatela dio.

1986ko apirilaren 26an, goizeko 1.23an, Txernobyngo laugarren erreaktorea lehertu zen unean, Svieta Volotxai lo zegoen Oranen, zentral nuklearretik 35 kilometrora. Orduan 13 urte zeuzkan eta lasai egiten zuen lo, larunbata zelako eta eskolarik ez zeukalako.

–Goizean jaiki, gosalduta eta landara aterantz nintzen gurasoekin. Patatak erein behar genituen –dio–. Gogoan dut udaberriko goiz zoragarri bat zela, eguzkitsua, beroa, zerua oskarbi zegoen.

Goiz hartan, Svieta, bere ahizpa Elena, 4 urtekoa, eta gurasoak landan zeuden bitartean, zerutik euri isil eta ikusezin bat ari zuen, zesia, estrontzioa, iodoa, plutonioa, neptunioa, zirkonioa, kadmioa, berilioa, lantanoa, errutenioa eta beste hainbat partikula erradiaktiborekin.

–Gogoan dut halako batean trafiko ugaria ikusi genuela herritik pasatzen. Auto ilarak zetozen Txernobyldik, Kievera bidean. Umeok bizikletak hartu genituen eta errepidera hurbildu ginen autoak pasatzen ikustera, jakin-minez. Bainujantziak generamatzen, bero han-

